

Pedal kolpeka

**Itzea Urkizu
Arzuaga**

Iraila ez da uda luzatu nahia besterik. Errutina, baina gona motza jantzita; langile estresatuaren plazeboa, terraza-zuritotan. Edo, azaroko azterketaldiaren presioa sentitzea, igerrilekuan etzanda. Inoiz oximoronaren nazioarteko egunik sortu nahi duenak, bukatzera doan hilabetean egin dezala, arren.

Iraila asmo handiegi edo agenda txiekiegien aroa ere bada, ordea. Iraila aldapa da, aldapa luzea. Igotzaile onenak bizikleta gainean nola, hala heldu ohi diote, askok, iraileko maldari: ikasturtea hasteko grinaz, bidea gozatu, izer-

ditu eta muinora iristeko, tontorrean zer dagoen argiegi ez badaukate ere. Baina, pedalei denak emanda joanagatik, irailari katea ateratzen zaio aldapa hasieran, beti. Betikoa. Tira, Kale Nagusikoa lasterketa maratonianoa da honezkero, eta, iraupen luzeko probetan, denborak bere lekuan jartzen du bakoi-tza.

Irailak bezalaxe. Bederatzigarrena baita, munduan dagokigun leku horretara bueltatzeko hilabetea: tokatzen zaigun jarrerara, eta tokatzen zaigun egiteko biologikoetara. Eta, parte hartze politiken aroan, badirudi azala

nahikoa gogortu behar zaiola bati, ingurukoek zugatik erabaki nahi dutela irentsi behar izateko. 30ak udan bete berri, emakumea eta ezkondua: hazi bat sabelean, edo irailik ez.

Egia esan, uda amaieran ez nuen uste txoko honetatik aritzea tokatuko zitzaidanik, baina eskerrak irailak horrelakoak ere badituen: ezusteko oasiak, aurreikuspen eta planifikazioen basamortuan. Etorriko dira aldapa berriak, bai, eta lerrootatik saiatuko naiz haiei neurria hartzen, ez dagokidan tokitik batzuetan, eta pedal kolpeka beti. Ikasurte on! •

Urtaranen arrain-oroimena

Koldo Sagasti

Pasa den astean jakin genuen Gorka Urtaranek debekatu egin duela Okupatu Gasteiz ekimenak urriaren 6rako Gasteizko Alde Zaharrean antolatu duen jaialdia. Jai egun horren asmoa zen hiriko herri mugimendurako erreferente diren lau proiekturen urteurrenak ospatuz beren lana balioestea. Izan ere, aurtun Hala Bedi irratiak, Gaztetxeak, Auzolana pilotalekuak eta Errekaleor auzo okupatuak 35, 30, 10 eta 5 urte bete dituzte, hurrenez hurren. Lau proiektu hauek, garai eta testuinguru ezberdinetan sortuak iza-

nik, badute kode genetiko komun bat: herri ekimenetik sortuak dira; herri ekimenak elikatuak; eta inguratzen dituen errealitatea eraldatzeko bokazioa dute. Ez da harrizkoa, beraz, hiria gobernatzen duten arrain handien gustukoak ez izatea.

Kontua da, gustuak gorabehera, orain go udalburuak eskuinetik hartu diela aurrea antzeko ospakizunak baimendu zizuten bere aurreko guztiei. Horietako azkenak, Javier Marotok, 2015ean Gora Gasteiz Egunaren beita irentsi behar izan zuen. Urtaranek, aldiz, esparru publikoa-

ren erabilera ukatu dio antzeko protagonistak dituen herri ekimenari. Auzapezak arrain baten oroimena izango ez balu, gogoratuko luke orduantxe hartu zuela berak maileguan botoen aginduz ez zegokion kargua, neurri handi batean, Gora Gasteiz plataformaren kanpainak eragindako itsasikarak hondora bidali zuelako PPko alkategaiaren kanpaina arrazista. Hauteskunde kiratsa sumatzen da eta udaleko lemaizainak, nonbait, norabidea aldatu du eta eskuinaren kaletan dabil orain arrantzan. Izango al da amua irentsiko duenik? •